

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

maiatzak 19-tik ekainak 20-ra

MUSIKA TAILERRA

4, 5 eta 6 urtekoentzat

INSTRUMENTUA ETA HIZKUNTZA MUSIKALA

7 urtetik aurrera

- Klarineta
- Txistua
- Flauta
- Trikitixa
- Tronpeta
- Biolina
- Soinua
- Saxofoia
- Tronboia
- Pianoa
- Gitarra
- Panderoa

MUSIKA MODERNOA

14 urtetik aurrera

- Bateria
- Baxu elektrikoa
- Gitarra elektrikoa
- Hizkuntza musikala helduentzat



**zatoz SORALUZE MUSIKA ESKOLARA
eta informa zaitez!!**

Idazkaritza / Secretaria
astelehenetik - ostegunera / de lunes a jueves
15:30etatik - 19:30etara

Frontoian gaude:
telf. 943 75 15 44

e-posta: soraluze@musika.e.telefonica.net



Elgoibarko IMH



DBH amaitu ondoren

Heziketa Zikloa

Erdi-Maila A/D ereduak

2 urtez

3 hilabeteko lan praktikak.

Arloak:

- Mekanizazioa
- Makineria eta linea eroanbideen instalazioa eta mantenimendu elektromekanikoa

Sarbide froga eginez gero Goi-Mailara pasa daiteke

Titulua: Teknikaria

Batxilergoa ikasi ondoren

Heziketa Zikloa

Goi-Maila A/D ereduak

2 urtez + 3 urtez = eman 5ekoa!

3 hilabeteko lan praktikak.

Arloak:

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa(*)
- Industri ekipoen mantenimendua(*)

3 urtez

3 urtetako lan esperientzia

- BERRIA: **IKASI ETA LAN** (*) arloetan

Titulua: Goi-mailako Teknikaria
POI metodologia (PBL)
Irakaskuntza Eleanitza

Goi-Mailako Zikloen ondoren

Ingeniaritza

Eskola

2 urtez + 3 urtez = eman 5ekoa!

3 urtetako lan esperientzia.

Ezaugarriak:

- Lan esperientzia lortu ikasten ari zarela
- Ikasketak ordaindu irabazitakoarekin
- Boloniako itunean indarrean dagoen titulu europar ofiziala
- Atzerrian lan-egonaldia

Titulua: Ingeniaria
Txandakako Metodologia
Irakaskuntza Eleanitza



Ate irekiak:

Apirilak 19, larunbata - goizeko 11:00etan

IMH - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa. 943 74 41 32 - imh@imh.es - www.imh.es

- **Entzutekuak:** Ume etorkinak euskaraz ikasten
- **Zerberri:** Dimisio mozioa onartu egin du Udalbatzak


soraluzeko
hamabostekaria **177.** alea
2008ko maiatzaren 9an

@pil-pilean



**Minbizia gaindituta,
bizitza besarkatzen**

SOCORRO URIARTE



**NEURE BURUA NIK NEUK
GIDATZEKO PREST!**



WWW.MONDRAGON.EDU/PREST

PREST



**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**



Zorionak Plaentxia.com!

Soraluzetarren
bilgune digitala
Albisteak, bideoak,
argazkiak, iritziak,
agenda...



ERROMERIXA EGUNA

Ekainaren 7an Ezozin

Trikitolariak, dultzaineroak, Larrain Dantza,
erromeria, dantzari xelebreak...

Antolatzaileak:



ERRATS DANTZA TALDEA
SORALUZE

SORALUZETARREN
EUSKAL JAIXAK

**BITTOR TREBIÑO****ANDER EPELDE**

JOSEPH RATZINGER

Kaixo Ander, Kontserbadorea dela diote, alemaniar jatorria duen Joseph Ratzinger. AEBetara eginitiko bidaian esandakoak adibide; etxean dituen pederastekin zer egin behar duen argitu ez bazuen ere, XXI. mendeko elizak bi erronka nagusiri egin beharko diola aurre zioen: familia eta sexualitateari. Berak nazismoarekin eza-gutu zuen zulo ilunean sartu nahi ez badugu, gizakion ongiaren aldeko jarreretan, tentazioetatik aldentuz ikusten du salbazioa.

Ratzingerrek dio, San Agustinek moduan, Jainkoaren hiria eraikitzen egin behar direla ahaleginak. Hego Amerikan txiroen aldeko lanean, Teologia askatazilean sinisten dutenekin, bestalde, ez dator bat. Leonardo Boff edo Jon Sobrino euskaldunaren jarrerak urruti daudela Jesu-sengandik esana du, besteak beste biolentzia justifikatzen dutelako.

1968ko maiatzak Europa osoan zabaldu zituen haize berritzaileen aurrean, bera Alemanian teologia irakaslea izanik, kritiko azaldu zen gertaera haien aurrean. Ratzingerrek teologia zapuzteko ahaleginak ikusi zituen. Marxismoaz baliatuz, ateismoari atek zabaltzeko arriskua ikusi zuen. Harrezkero, aldaketen aurrean aurkako jarrerak azaldu ditu behin eta berri.

Gaurko eliza beste toki batean ikusi nahi du Ratzingerrek; obediencia litzateke jarrerarik egokiena. Gurean, Ander, izendatu berri duten Iceta Gavicagogeascoa bizkaitarra izango dugu Ratzingerren oinordekoa. ☺

“

**Aldaketen
aurrean
aurkako
jarrerak
azaldu ditu**

Bittor Trebiño

**Hor daude
milaka kargudun
pederasta**

Ander Epelde

”

Eliza katolikoa, erromanikoa eta apostolikoa munduko gertakizunen aurrean beti joan da atzetik, beti izan da oso kontserbatzailea, atzerakoia, dena bekatua eta debekua, beti boterearen eta “status quo”-aren alde.

Historian zenbat gerra piztu izan diren Jainkoaren izenean, inortxok ere ez daki. Orain hor ibili zaigu munduko nazio boteretsuenean bere doktrina kontserbatzaile hori barreiatzen elizako buru gorena, Aita Santua. Horiek dira horiek tituluak!

Eliza horrek gizon-emakume asko iraindu ditu sexuaren gaian. Sexualitatea txartzat jotzen du. Ondorioz hor daude milaka eta milaka eliza kargudun pederasta eta beste gauza batzuk... Nahiz eta barkatu eta barkatu esaka ibili, sustraira ez bada jotzen, lehengoan gaude.

Hainbeste emakume elizan sartuta egonik ere, erabat baztertuak ditu emakumeak. Ea Aita Santuaren ordezkari noizbaiten Ama Santua daukagun, berdintasunaren izenean. Seguru orain dauzkagun agurre zahar hauekin baino hobeto funtzionatuko lukeela elizak.

Euskal Herriko ikuspegitik, zer esango dut, zuk ez dakizunik, beti arbuatu egin dutela euskal eliza (egon ere ez dago) baita Euskal abertzaletasuna ere. Gainera Euskal Herriko zapalketan ere oso paper garrantzitsua jokatzen du nazionalismo handiaren aldean lerrotuz.

Horra hor, elizari buruzko ikuspegi bat euskaldun ez fededun baten puntutik begira, arrazoia edo ez? Zeinek daki, auskalo! ☺

Goguan hartzeko

Justuak ez diren legeei obeditzea

oiza duintasunaren aurkako delatzailea ulertzen duena. ez du inongo tiraniak dominatuko.

Mahatma Gandhi (1869-1948) Politikari eta pentsalari indiarra.



GUTUNAK

2008ko UDAL AURREKONTUA

Lehenik eta behin salatu nahi dugu Udal Gobernu taldeak eduki duen jarrera EAJ/PNV Udal taldearekiko, aurrekontua egikaritzeko orduan.

Otsailean banatu zen Udal Aurrekontuaren zirriborroa eta hilaren 28an EAJ/PNV Udal taldeak gure proposamena planteiatu genuen Udaletxean sarrera emanez. Alkateak deitu gintuen gai honen inguruan bilera egiteko, eta apirilaren 16an bildu ginen arratsaldeko 5etan. Bileran argi utzi ziguten aurrekontuetan gure proposamenak ez zirela barneratuak izango eta horren adibidea daukagu; 6etan Ogasuneko Batzordean behin betiko aurrekontua banatu zuten, guk eginiko proposamenak aintzat hartu gabe. Ondoren jakinarazi ziguten Apirilaren 21ean ez ohiko plenoa burutuko zela aurrekontuen onarpenerako.

Posible da ordubeteko epean 5 milioi eurotako aurrekontua adostea? Argi geratu da: Udal gobernuak Ez du ez negoziatzeko ezta akordioetara heltzeko asmorik izan.

Bestalde, salatu nahi dugu 2003/2007 urteen artean Ezker abertzaleak eduki duen jarrera udal aurrekontua onartzeko orduan. Jakina da lau urte hauetan ezezko bozka eman diotela EAJ / EAK planteaturiko aurrekontuei. Gobernu Taldeak eskua luzatzen zuenean alderdi desberdinen ekarpenak jakinarazteko, ez zuten inongo proposamenik egin aurrekontua aberasteko. Beraien estrategia izaten zen, Udal Plenora joan eta bertan ezezkoa bozkatu, ondoren azalduko ditugun proiektuak barneratuak ez zeudelako.

Besteak beste: ez zela herritarren ezta alderdi politikoen partehartzerik bultzatzen (Proposamen zehatzik mahai gaineratu zuten lau urtean

Udaletxean sarrera emanez? Ez), kultur etxea egiteko partidarik ez zegoela, ezta eguneko zentrua aurrera eramateko dirurik.

Azaldu ditugun proiektu desberdin hauek aurrera eramateko 2008ko aurrekontuetan ez da euro bakar bat ere isladatzen. Beraz argi geratu da aitzakia hutsak izan direla proposamen hauek, EAJ / EAK planteaturiko aurrekontuei ezetza emateko. Guk ordea Otsailaren 28an egin ditugu gure ekarpenak, batzordeka:

Hirigintza: Izartu II egitasmoaren exekuzioa (Plaza Zaharra, Etxaburueta eta Erregetxearen urbanizazioa), Erregetxeako aparkamentuen exekuzioa eta Zeleta auzoarentzan igogailua.

Lurralde antolamendua eta Nekazaritza: Agenda 21 aren Ekintza Planaren exekuzioa, San Andres lokal sozialaren egokitzapena eta Landa guneko errepideetan biondak ezartzea.

Ongizatea: Eguneko zentruaren exekuzioa.

Kultura: Zinearen zahar-berritzea. Kultur etxearen proiektuaren exekuzioa.

Hezkuntza: PHiko euspen ormarearen exekuzioa.

Euskara: Euskera biziberritzeko planaren exekuzioa.

Kirola: Futbol zelaiaren zahar-berritzea.

Joku demokratikoan eta kasu honetan, jakinda Udal gobernuak ez duela gehiengorik aurrekontua onartzeko, logikoa da beste alderdi politikoei akordioetara iristea. Erantzunkizuna Udal gobernuarena da. Argi geratu da ez dagoela gobernatzeko kulturarik Udal Gobernuaren aldetik. Beraz, 2008ko Udal Aurrekontuaren bozketan ezezkoa eman dugu.

Soraluzeko EAJ/PNV Udal Taldea

Kiroldegiko arduradunak eta Udal Gobernu Taldeak eragozpen hauen aurrean barkamena eskatu nahi dizuegu erabiltzaile eta herritar guztiei, gure nahia beti kirol instalazio duin eta hobeko batzuk eskeintzea izando delarik.

Egoitz Portu, Larrait Lacuesta eta Maria Gallastegi

KIROLDEGIKO ARAZOK

Igerilekuaren instalazioek urteetan izan duten mantenimendu faltaren ondorioz arazo tekniko ugari ari dira gertatzen. Tartean noiz behinka beste matxuraren bat gerta daitekeen arren ziu-rrenik eragozpen guzti hauek konpontzen joango dira teknikoei esker.

ESKERRIK ASKO

Udal Gobernuaren izenean, eskerrak eman nahi dizkiegu azken egunotan beren babesa eta elkartasuna adierazi diguten guztiei.

Udal Gobernu taldea

PIL-PILEAN

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 1.920 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



bittartetik



Daniel Astarloa
Jakingo bazenu

Bezeroei eguraldiari buruz ihardutea... ez. Egia da baina. Atzo arratsalde eguzkitsu bizi ederra egin zuen, denongan nabari zen. Halakoetan jendea al darte hobez sartzen zait dendara, normalean baino fruta gehiago saltzen dut. Mostradoreak kolore deigarriagoa duela dirudi, ale txarrik ez, protestarik ez.

Herriko pasarte guztiak aditu nituen, etxe barruko asko baita, eta oporretarako planak, egindako margolanak, eta entzuten duten musika, eta idazten dituzten poemak... Bezero maiteek abilezia, premia berezia zeukaten nire aurrean askatzeko. Fruten usaina izango! Ze gustora nengoen barriketan, arratsa nahi baino bizkorrago pasatu zitzaidan. Bai nekien norbait falta zela. Gizonezkoak erosketetan hasiak dira, gazteak bati-pat. Zortziak jotzear, bera sartu zen barrua pizten didan irribarre goxoaz jantzita: betikoa, Mitko. Horrelako giroa den hurrengoan bere kaleko dendara beharrean honaino zergatik etortzen den galdetuko diot.

Ai! Jakingo bazenu zer darabildan buruan mailukiak hatzamarretan bueltaka ditudan bittartean.

Nagusixen moduan, umiak euskaltegira.

Bai, euskarazko gaittasuna hobetzeko etortzen dira. Berbetarako erreztasuna hartu eta hiztegixa aberasteko. Eskoliak bideratzen ditu ikasliak hona; bertatik esaten dabe zeintzuk dauken euskarazko ikastaruan biharra. Gero AEK Euskaltegixan eta Udalan artian kudeatzen da.

Zenbat ikasle dira?

Normalian sei etortzen dira, neska eta mutil. Ekuador, Venezuela, Maroko, Alicante... leku askotatik datozen umiak dira, jatorri eta hizkuntza eremu desberdinetatik. Adinez be desberdinak izaten dira.

Zenbatero etortzen dira zuregana?

Astian bi bidar elkartzen gara, eta ordu t'erdiko saia egiten dogu. Gu irailian hasi ginan baina juan zan urtian be egon zan, beste irakasle batekin.

Ze ekintza egiten dozuez?

Jolasak, kantuak, eskulanak, ipuin kontaketak... Mendira juaten gara lantzian behin eta hori izaten da gehixengustatzen jakuena. Lorak, animalixak, zelaixak... asko gozatzen dabe. Basarrixan be egon ginan juan zan

((ENTZUTEKUAK))

Maialen Elizburu

Ume etorkinak euskaraz



Ikasleetako batzuk Maialen Elizburu irakaslearekin.

astian eta oso gustora ibili ziran, mailukixak jaten, basarritarrek berbetan, animalixekin bertatik bertara... Euskarazko jarduna eta ingurunia eduki deitzen saiatzen naiz.


*Ekuador,
Venezuela,
Maroko...
dittue
jatorri.*

Aurrerapenik igartzen dozu?

Batzuetan bai. Badare asko berba egitten dabenak eta horrek gero eta hobeto egitten dabe. Beste batzuk ez dira ausartzen eta gehixago kostatzen jakue.

Zer jarrera dauke euskerian inguruan?

Danetik. Bereri galdetuz gero, batzuk diñue ez jakuela gustatzen, baina ez dakixelako esaten dabe; bestiak badakixela eta asko gustatzen jakuela. Kanpoko bateron bat etortzen danian batez be, gauzak esplikatzan dittue euskaraz eta gehixago eta errezagoe egitten dabe.

**TXURRUKA
JATETXEA**

Txurruka auzoa
20590 SORALUZE

T. 943 75 15 81

**HÑOS. BENITO
ANAIAK**



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. y F. 943 75 20 43
Santa Ana 26 , 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Plaentxia.com webguneak 14.000 bisita izan ditu urtebetean



Webgunera iristeko hiru bide desberdin egin dituzte nabigatzaileek; bisiten %46 webgunera zuzenean egindakoak izan dira, %33 bilatzaile baten bitartez eta %21 lotura edo erreferentzia bidez.

Mundu osoko bisitariak

39 herrialde edo lurraldetatik sartu dira Plaentxia.

2007ko maiatzean Sorraluzeko lehenengo albisteak eman zituen Plaentxia.com helbideak. Urtebetean 14.000 bisita jaso ditu eta 24.000 orrialde ikusi dira. Arrakasta gehien izan zuen garaia 2007ko Udal hauteskundeena izan zen, hautagai bakoitzaren berri eman eta emaitzak kaleratutakoan.

com atari digitalera. Espainiar Estatuaren ostean (13.000 bisita), Italia (60), Estatu Batuak (49), Argentina (36), Alemania (28) eta Erresuma Batua (27) daude. Ozeania ez beste kontinente guztietatik izan dira bisitariak, batez ere teknologia berriak hedatuta dauden eremuetatik. ☺

AMMren aurkako epaiketaren salaketa



Amnistiaren Aldeko Mugimenduari egiten ari zaion epaiketa eta herriko preso politikoen egoera salatu zuten. Datorren maiatzaren 17an Bilbon egingo den manifestaziorako deialdia egin zuten. Autobusa egongo da eta ohiko tabernetan izena eman daiteke.

Zilarrezko Tanta Soraluzeri

Odol Emaileen Elkarteak mila biztanleko eta urteko 50 donazio baino gehiago egiten dituen herriei ematen dien saria da Zilarrezko Tanta, eta Soraluzek jaso du duela gutxi. Gipuzkoako Elkarteak Roke Akizu Udaleko ordezkariari eman zion oroigarria, Osasunaren Munduko erakundeak gomendatzen duen indizea betetzearren.

Komun publikoak egoera txarrean

Udalak jakinarazi du asteburuetan komun publikoak ataskatu eta "narras" geratzen direnez, garbitzeaz arduratzen den enpresak uko egiten diola hauek garbitzeari. Zaintzen ez badira, neurriak hartuko dituela adierazi du Udalak.

Giro ona Irukurutzetan

Ehun lagun inguru, zahar eta gazte, izan ziren Irukurutzeta Eguna ospatzen. Saldia eta txorixoa banatu zituzten antolatzaileek eguraldi eguzkitsua lagun.





SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Mozio “etikoa” onartu du Udalbatzak, PSE-EE, EAJ eta PPren botoekin

IRITZIAK:

EAE-ANV:

“Hau dena espektakulu hutsa da”.

EA:

“Iaz negoziazioa zen bidea, eta orain kartzelaratzek eta arazoak ezkutatzea”.

EAJ-PNV:

“Ezin dugu oinarritzko eskubideen zapalkuntza onartu”.

PSE-EE:

“Ezker abertzaleak ETA ez gaitzesteak alde daudela pentsarazten digu”.

PP:

“Zentsura mozioa ezinbestekoa eta beharrezkoa da”.



Jendez betetako Udalbatzarrean PSE-EE eta EAJ-PNV alderdiek aurkeztutako mozio “etikoak” aurrera egin zuen, oposizioko botoei esker. EA abstenitu egin zen dimisioa eskatzeko ez beste puntu guztietan (dimisioaren puntuan ezetza eman zuen) eta EAE-ANVk ezezko botoa eman zuen.

Mozio “etikoa” deiturikoaren puntuetako batean dimisioa eskatzen zaie ETAREN indarkeria gaitzesten ez duten hautetsiei.



Jose Luis Arizaga ANVko alkateak esan berretsi zuen ez zutela dimitituko.

EAREN eta GEHITUREN MOZIOEK ERE AURRERA

EAREN mozioak aurrera egin zuen EA eta EAJren aldeko botoak, ANVren abstentzioa eta PSE-EE eta PPren kontrako botoak jasota. Gehituren homofobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren aldeko mozioa aho batez onartu zen.

ANVk gutxiengoan gobernatzen duen Udalak “demokraziarako berreskuratzeko” eskatuz sartutako mozioak PPko Maria Garmendia zinegotziaren baieztoko boto bakarra jaso zuen. PSE-EE abstenitu egin zen, eta gainontzekoek ezezkoa eman zuten.

Ezker abertzalea baztertze-ko eta Udaletxeetatik botatzeko saiakerekin gatazka politikoa ez dela konponduko dio ANVk aurkeztutako mozioak. Alkatea-



ren eta ANVko beste zinegotzien baieztoko botoa bakarrik jaso zenez, ez zen onartu. EA abstenitu egin zen eta gainontzekoek ezezkoa eman zuten. ☺

Udalbatzarraren bideoa
Plaentxia.com-en.

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tlfonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Juan Mari
arraindegia
Eguneroko
arraina
eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
T. 943 75 24 40





SOCORRO URIARTE

“MINBIZIA EZ DA HERIOTZA”

Minbizia; min bizia, haundia. Bizimina; bizitzeko mina, gogoa, grina. Kontrako esanahiak izan arren, biak izan ditu Socorro Uriartek, eta horri esker eutsi dio goiari. 22 urte dira kirofanoan sartu eta bularra kendu ziotenetik. Aurrera begira eta indartsu jarraitzen du.

Minbizia zenuela jakin aurretik, bazeneukan informaziorik?

Bai, izan ere, nere koinata Emilita monja egon zenean Belgikan, han gu baino aurreratuago zegoen gizartea, eta emakumeei beren gorputza aztertzen erakusten zieten, eta berak erakutsi zidan. Orain gaiaz berba egiteko zabalik egoten da jendea hemen eta ez zaio hainbeste garrantzia ematen; baina orduan, tabu bat zen minbizia.

Zela jakin zenuen tumore bat zeneukala?

Nik neuk topatu nuen tumorea. Benidormen nengoan. Hilekoa izan eta zortzi egunera, bularrak lasaiago daude eta errazagoa da norberak detektatzea. Dutxan nengoela konturatu nintzen lehen ez neukan zerbait nuela. Horri esker, denboraz harrapatu ahal izan nuen.

Norberak aurkituta errazagoa izango da onartzea, ala?

Garrantzia haundia ematen diot nik norberak bere gorputza begiratzeari, beldurrik eta taburik gabe; geure gorputza ezagutzeko eta prebentzio moduan. Hortan Osakidetzak lan ona egin du; urteroko errebisioa egiten die urte batetik aurrerako emakumeei eta oso garrantzitsua iruditzen zait, kasu asko garaiz detektatu direlako. Ez da beldurrik izan behar, lasai joan behar da.

*Fedeak
asko
salbatu
ninduen*

Ze jarrera hartu zuten ingurukoek minbizia zenuela jakindakoan?

Kalean edozer gauza entzuten nuen. Etxekoak hondoratu egin ziren. Norbaitek tira egin behar, eta neuri tokatu zitzaidan. Baina gero etxean ondo ikusten nindutenez, hobeto joan zen dena.

Gaixotasunaren berri izan ondoren, ze bide jarraitu zenuen?

Zerbitzu publikoan mamografia bat egiteko hiru hilabete itxaron behar nituen, zentru pribatu batera joatea erabaki nuen. Nire medikua ia aitatzat neukan; oso preparatuta etorri nintzen etxera. Ohean eseri, eskutik heldu eta esaten zidan "etxera joango zara, lasai". Nire momentu txarrak pasatu nituen, etxean gaztetxoak nituen eta, baina oso modu egokian eraman ninduen zirujauak.

Tratamendurik jaso zenuen?

Ez, nik zorte handia izan nuen eta ez nuen behar izan. Bularra kendu egin zidaten; basektomia egitearekin nahikoa izan zen. Gaur egun pilulak emango lizkidakete bizi osorako.

Zure bizimoduan zela eragin zuen minbiziak?

Medikuak hala esan zidan: "zu orain artean lanari emanda egon zara, senarra eta seme-alabak zaintzen, eta ez diozu zure buruari arretarik ipini. Orain maita ezazu zure burua gehiago eta besteak baztertu gabe, gozatu gehiago bizitzaz, hartu bizitzatik onena". Eta horixe egin nuen. Gaixotasuna baino lehen ez nituzke semeak bakarrik etxean utziko irteera batera joateko. Gero "desmelenatu" egin nintzen! Etxekoek animatu egiten ninduten joatera.

Gertaera txarrenek ere alde ona omen dute.

Gaixotasunak berak neure burua gehiago maitatzen eta baloratzen erakutsi zidan eta gauza guztiei balioa ematen. Baita beste lan batzuei ekiten ere; konturatu nintzen modu askotan lagun nezakeela eta ekintza txikiek poz handia sorrezaketela. Bestela, autobusen plataforma horretan ez nintzen berehalakoan sartuko! Gaixoen batzordekoa ere ez nintzatekeen izango.

Zer izan da lagungarri zuretzat?

Fedeak asko salbatu ninduen. Askok lagundu zidan. Fede handia neukan. Beti eskatzen nion: "zuk nahi duzuna, baina ez utzi hondoratzen, utzi aurre egiten".

Borroka psikologikoa gogorra izango zen.

Bai, gogorra da. Medikuek %50 eta norberak beste erdia. Ez zaitez inoiz hondoratu. Gaixotasunak berak eramaten zaitu hondora, arrastaka berare-

kin eramaten zaitu eta. Gaixotasunagatik asko sufritu duten eta gainditu egin duten askok bizi kalitate oso ona dute. Beste batzuk, zoritxarrez, ez dute horrelako zorterik izan.

Medikuntzan prestakuntza ona dagoela uste duzu?

Minbizia asko dago, baina medikuntzak asko lortu du. Lorpen asko egin dira. Baina pertsona berez da ezkorra horrelako egoeretan. "Begira sendatu garen guztioi" esaten diegu, baina jendea ez dagoen harekin gogoratzen da. "Eta zergatik ez zuen gainditu harek? Zergatik harek bai eta besteak ez?". Baina "zergatik" horri ez dago erantzun bat ematerik, ezta medikuek ere.

Heriotzari beldurra izaten zaio askotan.

Minbiziak heriotza esan nahi duela pentsatzen dugu, eta akatsa da hori. Geroz eta tratamendu leunagoak daude. Soraluzen bertan jende asko gaude minbizia gainditu dugunak eta bizi-kalitate oso onarekin bizi garenok.

Minbizia duten edo izan duten herritarrekin harremanik baduzu?

Batzuk ez dute inoren beharrik izaten; buruaskeak dira eta oso ondo iruditzen zait. Beste batzuek berba egitea behar dute. Medikuek ere orain egia osoa esatera ausartzen dira, nahiz eta batzuetan kontu handia izaten duten, pertsonaren izaeraren arabera ere kaltegarri izan daitekeelako. 🧡

Bularreko minbizia duten edo izan dutenen elkartean partaide izan da urte askoan, hitzaldiak ematen, bidaiak antolatzen...

Gaixotasunak neure burua maitatzen erakutsi zidan

Garrantzia handia du norberak bere gorputza begiratzeak, beldurrik eta taburik gabe



ZER TRISTEN DOTSAZU?

Ahal doguna baino gehiago gare zorpetuta?

Biztanle asko, gazteak batez ere, eguneroko bizimoduari eta etxebizitzaren erosketari aurre egiteko bankuari kredituak eskatu eta horiek ordaintzen ari da.

NURIA MARTIN
Fruta saltzailea



JOSE SOBA
Tabernaria



AMAIA RUIZ
Langilea



MARI MAR DEZA
Harakina




Baiezian nago. Oin 300 euro igo da hilerokua eta neri eragitten dosta igoeriak, ixa bizi osorako hipotekia daukat eta. Interesak bajatu biharko lirakez egoeriari konponbidia emoteko.

Bai, topeetara arte zorpetuta. Neri larregi ez dosta eragitten hipotekian kontuak baina tabernan igarri egiten da, jendiak dirua kanpora urtetzeko gordetzen dabela.

Ni behintzat bai, eta nere inguruan be hori entzuten dot. Geruago eta garestixago dago hipotekia eta asko estutzen gaittu; umia edukitta gehixago gainera.

Jendia oso harrapatuta dago. Dendan igartzen dogu kontsumuan beherapena. Baina nik uste dot egoeria oindio ez daguala hain gaizki be, bidaietara jende asko juaten da eta.

KOMIKIXA



Azkenian zenbaki bat besterik ez gara

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Karta enkarguz,
jaunartzeak
eta bataioak

Santa Ana kalea
20870 SORALUZE
T. 943 75 13 83

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

EHZ festibaletik laguntzaile eske



Euskal Herria Zuzenean Festibala hamairugarren edizioa egingo du aurten Idauze-Mendin (Zuberoa), ekainaren 27, 28 eta 29an. Jaialdia auzolanean antolatu eta kudeatzen denez, laguntzaileak behar dira. Izen ematea ekainaren 6a bitartean zabalik egongo da. Informazioarako: gazteak2@topagunea.com era idatzi edo 946215116 telefonora deitu. (Jaialdiari buruzko informazioa Plaentxia.com-en)

Ezoziko Ama Abesbatza Burgosera

Burgosko Roa herrian kontzertua emango du zapatuan Ezoziko Ama Abesbatzak, Vegako Ama Birginaren, herriko patrioiaren, ospakizunak direla eta. Zapatuan gaueko 20:45ean hasiko da emanaldia eta igandean Vegako Ama Birginaren Ermitan egingo den mezetan abestuko dute, bertan erromeria eguna ospatuko dute eta. Koruko partaide bat bertakoa da eta emanaldia antolatzeaz arduratu da.

Kaleko margo lehiaketa maiatzaren 25ean egingo da

XV. edizioa izango du aurten Kaleko Margo Lehiaketak eta Udalak parte hartzeko oinarriak kaleratu ditu. Maiatzaren 25ean egingo da, domekan, Soraluze gaitzat hartuta.

650 euroko saria irabazleari

Izen ematea egunean bertan egingo da Udaletxeko Zinegotzigen, goizeko 9etatik 10etara. Une berean, margolariek erabiliko dituzten margo-ohialak seilatuko dira.

Bi mailatan lehiatuko dira margolariak; A maila helduena izango da (14 urtetik gorakoena) eta B maila umeena (14 urtetik beherakoena). Epaia egunean bertan emango da, arratsaldeko



Iazko edizioan margolari bat bere lana bukatzen.

17:30ean eta jarraian, sari banaketa egingo da Udal Kiroldetik erakusketa aretoan. Zazpi sari banatuko dira denetara, 650 eurotik 50era bitartekoak. 🎨



Soraluzetarrak Dantzari Egunean

Antzuolako kaleetan eta plazan Soraluzeko 23 dantzari aritu ziren Debagoieneko taldeekin batera. Eusko Dantza, Tudelako Jota eta Larrain Dantza eskaini zituzten, besteak beste.

ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu giro euskalduna eta sanua

etxera

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK

**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

KM
Desing

Disseinua eta Sormena

Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Sora, salbaziorako azken aukerak



Kadeteen taldea.

Azken partidua geratzen Azaio Soraluze Futbol Taldeko Erregionalari lehenengo mailan egindako denboraldia bukatzeko. Lehenengo buelta ondo bukatu bazuen ere, azken aurreko doa sailkapenean. Mu-

trikuren aurkako partidua irabazi ezean, zuzenean bigarren mailara jaitsiko da. Irabaziz gero, lehenengo mailan mantentzeko azken aukera izango luke, beste taldeko azken hirugarrenarekin lehiatuta.

Jubenilak eta kade-teak, maila onean

Kopako partiduak jokatuta, aurreko postuetan amaitu dute denboraldia bi mailetako taldeek; jubenilak hirugarren (lehenengoarekiko 9 puntura) eta kade-teak bigarren (lehenengoarekiko 6 puntura) geratu dira. 🌀

Habian da Asier eta Iñakiren omenezko pilota txapelketa

Berrogeita hamar gaztek hartuko dute parte zazpigarren urtez Asier Heriz eta Iñaki Saezen omenez antolatu den pilota txapelketa. Bihar, zapatua, goizeko 9:00etan hasi eta 15:00ak bitar-

tean lehenengo partiduak jokatuko dira, San Andres auzoko pilotalekuan, eskuz binakako modalitatean. Bikoteak zozketa bidez osatu dira. Finala Santa Ana jaietan jokatuko da.

EMAITZAK

PILOTA

Titin III - Laskurain 19
Gonzalez - Barriola 22

Xala - Goñi III 22
Mtz de Irujo - Laskurain 14

Titin III - Laskurain 22
Capellan - Goñi III 8

Calles - Arrieta 22
Arrasatearrak 0

FUTBOLA

Elgoibar B 0 - Sora 1 (Erreg.)
Bergara B 4 - Sora 0 (Jub.)
Sora 3 - Bergara B 1 (Kad.)

Sora 2 - Bergara 5 (Erreg.)
Sora 2 - Segura 1 (Jub.)
Arizmendi 1 - Sora 3 (Kad.)

AGENDA

PILOTA

Zapatua 10, 20:00etan Santo Domingo de la Calzadan

Titin III - Laskurain
Xala - Goñi III

FUTBOLA

Zapatua 10, 16:30ean Mutrikun
Mutriku - Sora (Erreg.)

MABE
ILEPAINDEGIA

ESTETIKA
SOLARIUM

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81

Ion Murgizu Pinturak
MARGOKETA OROKORREAN
Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

PASCUAL CHURRUGA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61


ZORION AGURRAK



Jorge eta aittitta Antonio
Maiatzan 11an eta 26xan
8 eta 68 urte
Zorionak bikote!
Etxekuen partez.



Iker Etxabe
Zorionak
eta muxu haundi bat!
Etxekuen partez.



Gaizka Madrid
Zorionak txiki!
Etxekuen partez.



Eneko Alvarez Basauri
Maiatzan 11an 3 urte
Zorionak txapeldun!
Ondo-ondo pasau zure
egunian etxekuen partez.



Isabel Lizarralde
Maiatzan 18xan 50 urte
Zorionak ama! Jarrailtu
oin arte bezela,
onena zara eta!
Etxekuen partez.



Beñat Andres Leonardo
Maiatzan 5ian jaixua
Zorionak txiki! Ongi etorri!



Angelita eta Julian
Maiatzan 10ia Urrezko
Ezteiak
Zorionak bikote!
50 urte ezkontuta eta beti
bezain alai eta jator.
Baietz beste 50!
Maitasunez zuen familia.



Juan Antonio Varela
Maiatzan 21ian
Zorionak aitta!
Patxo bat etxekuen partez.



Irune Varela
Maiatzan 20xan 18 urte
Zorionak guapa!
Ondo pasatu eguna!
Etxekuen partetik.

jaiotakoak



BEÑAT ANDRES LEONARDO

hildakoak



MANUEL LOPEZ PUERTAS
MARGARITA ARANA AGIRREZABAL

LEHTAKETA

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Ze urtetan eraiki zan "Gayarre" Zinema?**

- 1- 1927
- 2- 1900
- 3- 1940

► **Saria:**
"Euskaraz bai" jolasa.

► **Irabazlea:**
Aitor Beretxinaga

► **Alejandro de Calonge...**
SAPAKo zuzendari izan zan 1906-1913 urtien bittartian eta gerente geroagora. Bere izena daroien etxiak SAPAK promozionatu zittuan eta gerra ostian eraiki ziran.



ARGAZKI ZAHARRA




Iturria: E. Sebal

ASPALDIKO ARRAIN SALTZAILLIAK

Erregetxearen azpitan, merkatu plazan ibiltzen ziran arrain saltzailliak urtero irtenaldi bat egiten zeben. Horrelako ibilaldi baten etaratako argazkixa da hau. Sasoi hartan karrotxo batekin ibiltzen ziran herritik zihar arraina

saltzen. Jentiak zestua botatzen zotsen sokiakin leihuetatik eta bertan jasotzen zeben arrain freskua.

Ezkerretik eskumara: Ramona Urionabarrenetxea, Eustasi Gallastegi, Joaquina Castilla, M^a Bel Sebal, Antoni Sebal, Jesus Orbea, Conchita Sebal, Vitori Etxeberria, Alegria Urionabarrenetxea eta Maria Basurko (*La Santurciana*).



MANUEL LOPEZ PUERTAS

APIRILAREN 24EAN HIL ZEN 85 URTE ZITUELA

Samin une hauetan familiaren ondoan egon zareten guztioi gure esker ona bihotz-bihotzez.

Begian jaio zan.
Nire eskuak ez eutsan
ikutu sekulan.
Iruntz-tanto bat zan
okaran beltzean.
Begian jaio zan.

B.G